

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Dendariak herriko
komertzioaren alde /08**

IKUSKIZUNA

**Pirritx eta Porrotxen
emanaldia geurean /09**

LEINTZ GATZAGA

**GURElen batzar
orokorra /10**



**XVI. LORAMENDI
LITERATUR
LEHIAKETAK**

SIRMENA LANEAN JARTZEKO ORDUA

LEIRE BLAZQUEZ: KUTXA SARIA JASOKO DU GAUR/5 • HURRETIK: ITZIAR AXPE, SUKALDARIXE/7

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 27
ITURRALDE. Belorrieta, 1. 943 08 11 43

DOMEKA, 28
ITURRALDE. Belorrieta, 1. 943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kiról etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postebrea	943 79 28 31
Basabeazpi ikastola	943 71 21 18
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

IKUS-ENTZUNEZKOA GAUR, EGUBAKOITZA
Jon Beloki mendizaleak *Jainkosen altzoan* ikus-entzunezkoa erakutsiko du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Kurtzebarri eskolan. Murruxikok-antolatu du ekintza hori.

INTERNETEN NABIGATZEN IKASTEKO AUKERA
Interneten nabigatzen ikasteko ikastaroa hasiko da abenduaren 9an, eta 22an bukatu. 20 orduko hastapen ikastaroa izango da. KZgunean emango dira eskolak. Izenematea 943 79 94 44 telefonoan egin daiteke. Bestalde, abenduaren 27an, Eguberritako postalak Internet bidez zelan bidali irakatsiko dute. Ordu bi iraungo du.

AKORDEOI KONTZERTUA
Abenduaren 3an, 20:30ean, akordeoi kontzertua izango da, parrokian. Kirill Chitybine akordeoi jotzaile errusiarrak emango du emanaldia.

LORAMENDIRENAGENDA

HILTEGIAREN INGURUKO HITZALDIA
Abenduaren 2an, 19:00etan, Zubillagako abere hiltegiaren inguruko hitzaldia izango da. Eneko Karrerak emango du hitzaldia, EHNEko Gipuzkoako lehendakariak. Udaletxe zaharrean izango da.

IKASTAROA SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOAZ
Loramendik antolatuta, hain modan dagoen sukaldaritzako makrobiotikoaren inguruko ikastaroa izango da, abenduaren 14an, 15:30etik 17:30era. Silvana Huegun adituak emango du ikastaroa. Hasiara batean sukaldaritzako begetarianoaz egin behar zuten ikastaroa, baina aldatu egin dute antolatzaileek.

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN



Hainbat gaztek talde antimilitarista sortu zuten

Duela hamar urte, 30 inguru ziren soldadutza egiteari uko egin zioten aretxabaletarrak. Gainera, sei lagunek epailearen aurrean deklaratu behar izan zuten. Baina geroago ere intsumisoak gehiago izango zirela eta, taldea sortzea erabaki zuten.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“*Enbido!*”



—*Enbido!* —*Bi geixao!*
—*Ordago!*

JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA



PALESTINA, ZURE MINA
Begoña Bilbao

Elkarlanean, 2004 118 orrialde

Sawsan izeneko neska gaztea Gazako ospitale batean esnatu da, eta ez du ezer gogoratzen buruan hartutako golpe baten ondorioz. Gerora gauzak gogoratzen hasiko da. Aitzakia horrekin, Begoña Bilbaok Palestinako egoera azaldu digu era errazean ulertzeko moduan, eta Palestinaren alde agertuz.

Palestinaren egoeraren gainean gauza asko esan diren arren, ezagutzen ez genituen batzuk agertuko zaizkigu hemen, zapalkuntzaren zenbait adibide, besteak beste. Gazteei zuzendutako liburua da.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak ASTELEHENEKO GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.




Expres




Santakurtz 16
943 79 23 43

Jou Diaz




Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Errekabarren merkataritza etxea.
Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETAK
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63




ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

ATREBENTZIAEZPADA/ Kaleko uso eta katuei eta erreka paittei jaten emutien aldekie zara?



JUAN RAMON ALTUBE
langillie




PEDRO MORALES
erretiratue



ALEJANDRA SEBASTIAN
etxeoandrie



GURUTZE MENDIA
langillie



KARMELO BENGEOA
erretiratue



PAULA FERNANDEZ
etxeoandrie

Uste dot ez jakuela jaten emun biher. Ni oin dala urte batzuk hasi nitzen katu batei jaten emuten, eta handik gutxira mordo bat etorten jaten. Ordutik dakit ez jakuela janik emun biher.

Paittei eta usuei bai, baiñe katuei ez. Entzun izen dot eskatu dauela janik ez botateko, baiñe jentiek botatzen dutze paittei, eta jan egitten daue. Lehengo egunien 45 paitta kontau nittuen.

Paittei emuten dutzeu jaten, baiñe bestiei ez. Katuei ez jakue emun biher, bestela mordue etorten die. Lausitta auzuen eta Andra Mari auzunien, katu mordue egoten die, larrei.

Ez jakue emun biher. Lau-sittan katu mordue dau, eta portalera etorten die jana eske. Jentiek emun egitten dutze, eta ugerittu egin die. Agostuen basurie botaten be ezin gitzen fan.

Katuei ez, bestela larrei ugariketan die eta. Nik neuk paittei egunero emuten dutziet jaten, baiñe ogi zati txikiñek, arratoiek ez daixien jan. Lehengo egunien 18 paitta etorri jaten.

Nik neuk lehenau katuei emuten nutzien jaten, baiñe ikusi neuen ez zala ona. Lau-sittan bizi naz, eta sekulako arazue daukou. Egunero katu mordue miauka jana eske. Bilddurgarrix da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK OZTOPOAK NAGUSI Herritar batek argazki hori ateratzeko eskatu digu, bere esanetan, oraindik ere herrian oztopo arkitektonikoak jartzen direla ikusteko. Araba ibilbidean atera dugu argazkia, eta lanak duela gutxi egin dituzte. Alde bietara eskaile-rak jarri dituzte, eta, salaketa egin duen herritarraren iritziz, alde batean behintzat aldapa jarri beharko zuketela./M.A.

ETABARRUAN...

GIZARTEA /04

Ekintzez beteta omenaldia

Bihar ekintza ugari izango dira Alberto Etxebarriari egingo dioten omenaldia dela eta.

LEIRE BLAZQUEZ /05

Leire Blazquez saridun

Leire Blazquezek saria jasoko du gaur, nota onak atera dituela eta. Kutxak ematen ditu sariak.

KIROLA /06

UDA laugarren sailkapenean

Azkenaldian ondo ari dira preferente mailako UDAKo-ak. Domekan jokatu dute partidua.

ASTEKODATUA

325

ARGAZKI ERABILI DITUZTE MUNTAIA EGITEKO

Argazki taldekoek Alberto Etxebarriaren omenaldirako muntaia egin dute, eta 325 argazki erabili dituzte. Datorren urterako egutegia ere prestatzen ari dira, Albertoren Txinako argazkiekin.

BESTEKEESANA

“ Eneko Etxebarrietak munduari bira eman zion bizikletan, eta bere hitzaldi batera joan nintzen. Han bururatu zitzaidan bizikletan bidaia bat egitea. Baina hasierako helmuga ez zen Jerusalem. Italia, Kroazia edo Esloveniara arte heltzea, asko jota, zen lehen ideia. Baina, hasi eta gustura sentitzen nintzenez, eta eguraldia ere lagun izan nuenez, apur bat gehiago jarraitzea erabaki nuen, nekatu arte, Forrest Gump-ek egin zuen bezala. Eta azkenean Jerusalemera heldu nintzen, hiri hau ikusteko gogoa nuelako, eta niretzat ikono garrantzitsu bat delako. Internet bitartez bidaia hori egiteko informazio asko jaso dut. Eta ikusten nuen jende asko eta asko hilabete batzuk lehenago prestatzen hasten zirela”.

JOSU VELASCO
‘ASTELEHENENKO GOIENKARIA’/04-11-22

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Logikarekin bueltaka

Badira mundu honetan hainbat gauza harridura sortzen didatenak. Eta guztiek faktore bera dute komunean: gizakiak erabakiak hartzeko duen jokabide arraroa. Politikan dela, ekonomian dela edo giza harremanetan dela, gizakiaren egiteko moduak beti txundituko nau. Baina ez beti onerako. Hona hemen adibide bat. Jakinaren gainean izango zarete Aretxabale-tan etxebizitza promozio berri bat egitear dagoela. Eta promozio horretako 100 bat etxebizitza babes ofizialekoak izango direla. Eta beste 185 bat prezio finkatuko-ak.

Honaino ez dago kritikarako arrazoi handirik. Baina kontutan hartuta etxebizitza mota bakoitza nori zuzendua dagoen eta zeintzuk diren etxebizitza horiek erosi ahal izateko baldintzak, orduan da harritzen hasten naizen momentua. Zergatik, prezio finkatukoak babes ofizialekoak

baino lehen zozketatu? Badago inongo logikarik horretan? Alderantziz behar luke izan. Bestela, babes ofizialeko etxe baterako eskubidea dutenak prezio finkatuko etxeetarako lehian sartuko dira. Merkatua dagoen moduan ni ere ez nintzen itxarotera arriskatuko.

“Zergatik prezio finkatutakoak babes ofizialekoak baino lehenago zozketatu? Badago logikarik horretan?”

Baina kontua da zozketan zortea badute gero ez dutela izango eskubiderik babes ofizialekoetara aurkezteko, eta bidean babes ofizialekoetarako eskubiderik ez duen beste norbaiti bidea itxi diotela. Horrela guztiak izango lirateke kalte-tuak.

Badakit etxebizitza batzuek Udaletxearen ardura direla eta besteak Eusko Jaurlaritzarena. Baina horrek ez du inolaz justifikatzen horrelako desko-ordinaziorik. Jakin gura nuke zerrendan dauden ia 300 pertsona horietako zenbatek betetzen dituzten babes ofiziale-rako baldintzak. Eta baita ere nork beteko dituen gero babes ofizialeko 100 etxe horiek.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Maria Agirre
ERREDAKZIOA
Maria Agirre
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94
ISSN
1134-2609
TIRADA
2.700 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Lapurretak
Urkulun

Lagun batei pasatu jakon lehengo lastien. Fan zan Urkulura automobillien, eta bueltie egitten abilen bittartien, automobila zabaldu eta barruen eukon dana kendu otzien. Poltsa, txamarra eta telefono barik geratu zan lagune. Urkulura lasaiket fan, eta nerbixuek jota bueltau!

Kontue da, segittuen ertzainengana fan, eta honeik esan otzien ez zala asteko lehenengue. Itxura danez, asko ez dala bijiletan ibili zien, eta lapurretak behera egin euien. Baiñe oin barriro bueltau die lapurrek. Esan biherrik ez dau, baiñe, kontuz Urkulun!

Obrak be hasi biherko dittue ba Urkulun! Aurten egingo euiela esan, baiñe presara ailegau baiño lehenau sekulako lokotzararak dauz ondiokan. Zikin-zikin ailegau nitzen ni neu etxera!

Bixer be makina batek zikinduko dittue mendiko botak. **Alberto Etxebarriai** egin biher dotzie omenaldixe, eta egualdi ona ez zan txarto etorriko. (Holako kasuetan, monjai arraultza batzuk eruetie ondo egoten da). Izen be Alberton Madrilleko lagunek be etortekuek die, eta horreik herri inguruek zelako polittek dien ikustie ondo egongo litzake. Badakitue, lainuekin zaile izeten da ezer imajinetie.



Sari banaketa urtarrilaren 21ean egingo dute. Hainbat sari izango dira, eta guztiak ere dirutan emango dituzte.

KULTURA/ Loramendik literatur lehiaketak deitu ditu herriko gaztetxoendako

Hamaseigarren aldiz Loramendiren lehiaketak

MARIA AGIRRE

XVI. Literatur Lehiaketa deitu du Loramendik. Aretxabaletan bizi edo ikasten duten gaztetxoek dute esku hartzeko aukera. Aukerak ugari dira: amodiozko gutunen lehiaketa, piropoena, e-mail bidezko gonbitena, komiki, grabaketa, ipuin eta poesia lehiaketak.

Lanak abenduaren 21a baino lehen entregatu behar dira, eta sari banaketa urtarrilaren 21ean egingo dute. DBHko lehen eta

bigarren zikloan ikasten dutenek parte har dezakete, eta derrigorrezkoa da herrian bizi edo ikastea.

ZAZPI AUKERA

Amodiozko gutunen lehiaketan aurkeztu nahi dutenek orrialde bateko lana aurkeztu behar dute. Piropo eta e-mail bidezko gonbiten lehiaketan, berriz, Loramendikoek jarri duten baldintza honakoa da: pertsona batek ezin dezakeela lan bat baino gehiago aurkeztu. Komiki lehiaketan ere badira baldintza orokor batzuk,

eta gainera, 4-12 biñeta bitartean aurkeztu beharko dira. Bestalde, grabaketak aurkezten dituztenek gehienez 30 minutuko lana aurkeztu beharko dute. Ipuin eta poesia lehiaketei dago kienez, poesian luzera libre izango da eta ipuinetan hiru orrialdekoa, gehienez.

Horrekin guztiorrekin, sariak izango dira irabazleentzat. Lehenengo zikloan ari direnei sari bi eta bigarren zikloko ikasleei hiru emango dizkiete. Dirutan emango dituzte sariak Loramendiko kideek.

Herrian hezkuntza euskalduna lantzearen alde egingo dute

M.A

Euskal Herriak bere eskola taldeak, herrian jarraituko dituen lan ildoak aurkeztu zituen atzo, eguna. Euskal curriculumari helduko diote aurrerantzean, herrian horren beharra dagoela uste baitute.

Euskal curriculumaren gaia garrantzia hartuz doa, eta herrian ere gai hori landuko dute. Eskolak euskaraz ematea eta hezkuntza euskalduna jasotzea askotan lotuta ez direnez joaten, euskal kulturaren transmisioa zelan egin landuko dute. Dagoeneko taldeak egin ditu horrekin lotu-

tako ekintza batzuk. Euskararen Egunean, Euskal Herriko mapa historikoak salgai jarri zituzten. Une honetan, zortzi lagun ari dira herriko taldean esku hartzen. Ikasle, guraso, irakasle eta herri-tarrek osatzen dute taldea, eta aurrera begira herrian taldea eza-gutzera eman nahi dute.

LABUR

Albertoren argazkiekin emanaldia

Bihar, zapatua, omenaldia egingo diote Alberto Etxebarriari. Argazki taldean ere esku hartu zuela eta, taldekoek Albertoren 325 argazkirekin muntaia egin, eta bihar eta etzi, zapatu eta domekan, eskainiko dute, Durana kalean, 18:00etatik aurrera. Albertoren hainbat argazki ikusteko aukera izango da: Aratus-teetakoak, koadrilakoak eta San Fermin jaietakoak, besteak beste. Bihar, gainera, 18:30ean, Arrasate Musikalen kalejira izango da, Arrasateko talde horri ere laguntzen ziola eta.

Albertoren omenaldiko ekintzak bihar goizean hasiko dira, Kurtzebarrira egingo duten irteerarekin; 09:30ean abiatuko dira Murruxikoren lokaletik hainbat lagun. Kurtzebarrin Albertoren errautsak botako dituzte, eta Madrilgo lagun talde batek plaka bat jarriko du. Horren ondoren, bazkaria egingo dute Taberna-Berrin. Ia 100 lagun joango dira bazkarira. Iluntzean, aipatutako ekintzak izango dira. Eguraldi eskasa egiten badu, Kurtzebarrira beharrean Eliza Berrira joango dira. Hori, hala ere, bihar goizean erabakiko dute.

Gabonetako ekintzen egitaraua kalean dago

Abenduan eta urtarrilean izango diren ekintzak batzen dituen egitaraua atera du Udaleko Kultura Sailak. Hala, abenduaren 8an erakusleio lehiaketa hasiko da, eta abenduaren 13an pintura erakusketa jarriko dute. Abenduaren 14an ipuin kontalari bat izango da, eta 15ean, 16an, 17an eta 20an Leizarra musika eskolaren emanaldia. Abenduaren 24an, berriz, Gabonetako kantuak abestuko dituzte herriko guraso eta umek. Arratsaldean, Olentzero aterako da, eta jaiotza jarriko dute.

Arotz lanetan behar duzun guztia

AZKARATE
AROSZTEGIATelleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA

KTIBOS
ZAPATA DENDA



Murubide 2 behea • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 37 33

Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

LEIRE BLAZQUEZ/MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKASLEA

“Nota onak atera ditut, gustuko nuen karrera aukeratu nuelako”

M.A

Gaur, egubakoitza, saria jaso behar zuen Donostian Leire Blazquez aretxabaletarrak. Kutzak emandako saria, 1.300 euro, eta, hain justu ere, ikasketak nota onekin amaitu dituelako. MUko beste ikasle batzuek ere jasoko dute saria.

Zer ikasi duzu?

Humanitateak eta Enpresa Zientziak ikasi ditut Eskoriatzan. Irailean aurkeztu nuen proiektua.

Nota onak atera dituzula eta emango dizute saria, ezta?

Bai. Kutzak urtero ematen dituen sariak dira, eta HUBEZI-ko hiru ikaslek jasoko dugu. Mondragon Unibertsitateetik guztira hamar lagunek.

Beraz, bikain notarekin amaituko zenituen ikasketak?

Ez dakit, benetan. Ez didate oraindik titulurik eman, eta ez dakit ikasketak zein notarekin amaitu ditudan. Baina bai, gehienetan nota onak atera ditut.

Beti atera izan dituzu nota onak?

Bai, gehienetan, baina ez beti. Lehenago matematikekin ibiltzen nintzen gaizki, ez zitzaizkidan gustatzen. Baina unibertsitatean oso pozik ibili naiz, bereziki gustuko nuen karrera aukeratu nuelako. Horrela ikas-
tea errazagoa da.

Zein da nota onak ateratzeko sekretua?

Ez dut askorik ikasten, baina eskoletara joan eta apunteak nik neuk hartzen nituen, ez zait gustatzen inoren apunteetatik ikasterik. Apunteak hartzen nituen bitartean, oharrak idazten nituen, eta horrek asko laguntzen du ikasteko orduan. Gainera, ikasten ibili naizen bitartean, lan ere



M.A

“Matematiketan ibiltzen nintzen gaizki, ez zitzaizkidan gustatzen”

egin izan dut. Baina gaupasarik eta halakorik, ez.

**1.300 euroko saria eman-
go dizute. Zein asmo?**

Bidaiatzeko edo edukitzeko ondo etorriko zaizkit.

“Ez dut askorik ikasten, baina eskoletara joan eta apunteak nik neuk hartzen nituen”

Saria dela eta, asko jo dizute adarra?

Alecop-en, lanean, apur bat bai, baina, egia esan, ez diot jende askori esan saria jaso behar nuenik. Batzuek bakarrik dakite.

LABUR

Belarjaleak direla eta, Deba ibaiko paitei janik ez ematea gomendatu du basozainak

Mikel Olano Debagoieneko basozainak esan digunez, Deba ibaian bizi diren paitak belarjaleak dira, “ur ertzeko belarrak eta ur azpiko algak jaten dituzte. Horregatik, ogia ematen diegunean on egiten diegula uste badugu ere, ahateek ez dute ogiaren beharrik, eta litekeena da euren ordeztaratoiek jatea”. Gero eta gehiago dira paitei ogia ematen dieten herritarrek, eta azkenaldian arratoiak ugari egin dira herrian. Mikel Olanok jakinarazi digunez, ibai bazterrean arratoiak ugari izan dezake ahateengan, kumeak jan ditzakete eta.

Toti Martinez de Lezea idazleak hitzaldia egingo du datorren martitzenean Kurtzebarri eskolan

Euskal Herriko historiaren inguruko hitzaldia eskainiko du Toti Martinez de Lezeak, hilaren 30ean, 18:30ean, Kurtzebarri eskolako liburutegian. Zeurea, neurea, geurea... guztiona Euskal Herria leloarekin, euskal curriculumari dagozkion gaiak aztertzen ari dira Kurtzebarri, eta gurasoendako hitzaldi hori antolatu dute. Abenduaren 2an, berriz, jaia egingo dute Iturrigorri frontoian, txalaparta, alboka eta txistu emanaldiarekin, besteak beste.



Sarrerak agortu antzezaren estreinaldian

Joan den egubakoitzean, bi bider antzeztu zuten Trilkimailu taldekoek *Singing euripean* antzezlan, eta emanaldi bietan sarrerak agortu egin ziren. 120 lagunek ikusi zuten herritarrek antzeztutako obra, eta gustura atera ziren ikusitakoarekin. Orain, *Singing euripean* beste herri batzuetan antzezteko asmoa dute. Baliteke laster Arrasateko gaztetxean eta Aramaioko kultura etxean antzezte. Gidoia Gorka Urribetxebarriak eta Beñat Zamalloak idatzi dute.

Mediterraneoan zeharreko itsas-bidaia zoragarria irabazi nahi?

Egin zaituzte *Astelehenerko Goienkaria*-ren harpidedun, eta Mediterraneoan zeharreko bi lagunendako itsas-bidaia zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Ez galdu aukera. Harpidetu zaituzte!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

VIAJES IBERIA

Laguntzailea:

FUTBOLA

UDAK laugarren postura egin du salto, eta aurrera egiteko aukera du

Domekan, 16:30ean, Lesakako Beti Gazte taldearen aurka jokatuko dute partidua

M.A

Joan den asteburuan Mondraren aurka berdindu ondoren, etzi, domekan, puntuak gehitzeko aukera izango du preferenteko UDAk. Nafarrak etorriko dira domekan Ibarra: Lesakako Beti Gazte taldea. Talde hori 16. postuan dagoenez, UDAk irabazteko aukera aparta du.

Hala ere, konfiantza larregi izatea ez da ona izaten, eta UDAko jokalariek lan egin beharko dute Beti Gazte taldeari irabazteko. Baina UDAkoak sailkapeneko laugarren postuan daude, eta Beti Gaztekoak hamaseigarren.

JOAN DEN ASTEBURUKO DERBIA

Joko aldetik partidua eskasa izan zen arren, derbietan gertatzen den legez, norgehiagoka nagusi izan zen joan den zapatuan Mondraren aurka jokatutakoan ere. Bana berdindu zuten. Mondraren gola Asierrek egin zuen, eta UDarena Erik kapitainak.

Lehenengo zatian UDAkoak izan ziren nagusi, baina bigarren zatian Mondrak gola egitea lortu zuen. Horren ondoren, Mondra-



AITOR LIZARRALDE

Nerbioak nagusi izan ziren, eta Mondrako jokalariek haserre bukatu zuten.

ren area barruko jokaldi nahasi batean, UDAko jokalaria bat lurre-ra jausi, eta epaileak penaltia adierazi zuen. Horrekin batera, Mondrako atezainari txartel gorria atera zion, epaileari UDAkoa lotsagarri bota zela esatea-

gatik. Euskaraz esan zion hori, eta epaileak antza ulertu ez, eta txartel gorria atera zion. UDAko zaleen iritiz, hala ere, lehenago Orueta jokalaria egin zioten penaltia, baina epaileak ez zuen horrelakorik adierazi.

DERBIA BAINA PARTIDU LASAIA JOKATUKO DUTE BIHAR, ZAPATUA

Almen-Aretxabaletako neskek Almen-Arizmendikoen aurka jokatuko dute partidua

Derbia izango da, baina lasaia, bi taldeak elkarrekin entrenatzen baitira. Bihar, zapatua, Almengo futbol zelaian, Almen-Aretxabaleta taldeak Almen-Arizmendi taldearen aurka neurtuko ditu indarrak. 12-15 urteko neskek arituko dira nor baino nor gehiago, eta Almen-Aretxabaleta taldea da faborito. Urrian jokatuko zuten partiduan, talde horrek 4-1 irabazi zuen.

OÑATIRA JOANGO DIRA BIHAR, ZAPATUA, BESTE TXAPELKETA BATERA

Xake taldeko Esteban Romero eta Aitor Alkaide Azkoitiko txapelketan izan ziren

Joan den domekan Azkoitiko txapelketara joan ziren Esteban Romero eta Aitor Alkaide, Arlutx Xake taldeko jokalaria. Estebanek 6. postuan bukatu zuen, eta Aitorrek, 13. postuan. Azkoitiko xake taldeak 25 urte bete dituela eta, herritik ordezkarri bi joan ziren txapelketara. Bihar, zapatua, Oñatin jokatuko da beste txapelketa bat, eta herritik lau bat lagun joango dira.

JOKATZEKOAK

ESKU PILOTA

Azaroak 27 kirol etxea
10:00etan Juantxu Unai Uriarte-Anartz Agirre Xabier Larrañaga.

10:30ean Jon Ormaetxea Gorka Etxebarria-Igor Oruesagasti Joseba Larrañaga.

11:00etan Xabier eta Oier Sarasua-Asier Mujika Jose Mari Carrillo.

EMAITZAK

FUTBOLA

Mondra 1 UDA 1
Preferentea.

Martutene 1 UDA-ARIZ 2
Ohorezko jubenilak.

UDA-ARIZ 1 Kostkas 1
Lehenengo jubenilak.

UDA-ARIZ 5 Urola 0
Lehenengo mailako kadeteak.

Eibartarrak 0 UDA-ARIZ 1
Bigarren mailako kadeteak.

Antiguoko 6 UDA 0
Ohorezko infantilak.

Atsedena

Infantil txiki.

UDA 3 Bergara 0

Alebinak.

ARIZ-UDA 2 Salvatierra 0
Emakumezkoak F-11.

Antzuola 0 ARIZ-UDA 1
Emakumezkoak F-8



Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



HURRETIK



Itziar Axpe

Sukaldarixe

Aurreko astien hasi zan Itziar losu harategixen lanien. Sukaldien sartute egoten da, aurrez egindako janarixe prestaketan. Jatun ona dala esaten dau, eta egitten dittuen plater guztixen artien, bakallae preparentan dau onduen.

Zer dala eta sukaldien lanien?

Txikittatik gustau izen jat lapiko artien ibilttie. Oñatiko ostalaritza eskolan ikesi, eta oin dala zortzi urte hasi nitzen mundu hontan lanien. Tabernetan, zerbitzari lanetan eta sukaldien ibilli naz; danetik egin dot.

Eta nundik nora ibilli zara?

Maulanda, Mondragoe eta Legutianon egin dot lan. Oin, Aretxabaletan nau, eta oso jende jatorra topau dot hamen.

Zein izengo da zure lana?

Lelengo astien goixez sukaldien eta atsaldien tabernan egin neuen lan. Oin, baiñe, sukaldien bakarrik ibilliko naz. Aurretik ez dot halako toki baten lan egin, eta neuretako barrixe da enkar-goz eskaketan dien janarixek preparentie.

Zein da onduen preparentan dozun platerra?

Bakallae pil-pillien.

Eta okerren?

Tripakixek. Gustetan ez jatenez, ez dot jaten, eta horregattik izengo dala pentsetan dot.

Eta zein da gogokuen dozun janarixe?

Entsalada epela. Bakallae, gulek, letxugie, tomatie, gazta freskue eta ozpin-olixue botata primeran geraketan da.

Zeure etxien zeiniek prestaketan dau janarixe?

Jai eukitten badot, nik neuk. Bestela...

Ikusten dozu sukaldaritza programaren bat?

Etxien egonez gero, bai, gustetan jat ikustie. Gaiñera, beti ikesten da zeozer.

Bide batez, zein sukaldari dozu gogoko?

Argiñano ez jat bape gustetan; izen be, fama burure igo jakola uste dot. Nahixau dot Martin Berasategin lan egitteko modue.

Zer da erre jatzun azken gauzie?

Etxien ninguela gaztai-tarta bat egin neuen, eta erreta bukatu euen postriek.

Ze eritzi dauketzu janari bizkorren gainien?

Egixe esatiarren, zelakue dan ikusi biher. Janari amerikanue saltzen dauen lekuek ez jat bape gustetan.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA / Oihana Barrutia

Eslovenia / 2004ko abuztua

Naiara, Lorea, Estitxu eta Oihana Aretxabaletako lau lagun dira. Abuztu-ko oporretan Eslovenia aldera joan ziren hamabost egun igarotzera. Kasualitatez amaitu zuten bertan; izan ere, uztaillaren bukaeran oraindik ez zekiten nora joan oporretan. "Egunkarian irakurri genuen agentzia batek taldeko bidaiak antolatzen zituela, eta interesgarria zela pentsatu genuen". Hogeita zazpi pertsona joan ginen eta giro polita sortu zen. Gainerakoak ere euskaldunak eta gazteak ziren", eman dute aditzera.

Autobusez egin zuten bidaiak lau lagunek, eta joan-etorria luze egin zitzaizela aitortu dute. "Eslovenia txikia denez, denbora laburra igaro genuen autobusean bidaiatzen". Lo egiteko zailtasunik ez zutela izan nabarmendu dute aretxabaletarrek. Hamabost egunean kanpinean egin zuten lo, "bi edo hiru egun toki batean egon ondoren, denda jaso eta beste batera joaten ginen. Nahiko ondo daude bertako kanpinak. Hala ere, toki arraro batean edo beste lo egitea egokitu zitzaigun".

Ekialdetik mendebalera gurutzatu zuten Eslovenia bidaiari, eta kostaldean amaitu. Hainbat gaztelu, laku, Alpeak eta Ljubljana hiriburua ikusteko aukera izan zuten, besteak beste. "Turismoa egiteaz gain, eguzki apur bat hartu, bizikleta eta piraguan



"Esloveniako paisaia oso polita da: mendiak, lakuak, ur-jauziak... Dena da ikusgarria"

"Herrialdea bera oso garbi mantentzen dute; etxeetako loreak, ortuak-eta asko zaintzen dituzte"

ibili eta mendi irteerak egiteko denbora izan genuen, esaterako". Esloveniako paisaia txunditu zituen orokorrean aretxabaletarrek. "Mendiak, lakuak, ur-jauziak... ikusgarriak direla esan daiteke. Alpeetako Bohinj lakua asko gustatu zitzaigun", eman dute aditzera lau lagunek; "eta gutxien, berriz, kostaldeko portolaneko hondartzak. Azpimarratzekoa da leku gehienak ondo zainduta daudela. Jende gehiena familia bakarreko etxe txikietan bizi dira, eta loreak, ortuak... asko zaintzen dituzte. Ljubljana kaleak ere oso garbi aurkitu genituen", eman dute aditzera.

Alderik alde ibiltzeaz gainera, bertako gau giroa ere probatu zuten. "Gau bakar batean irten ginen, kostaldeko Portoroz herrian, eta oso ondo ibili ginen. Hala ere, bertako giroa ez zen beste munduko ezer; talde handia ginenez, nahiko izan zen giroa animatzeko".

Ezustekorik ere izan zuten. Izan ere, Pivka Jamako kanpinan zeudela, Europako banderak zeuden zintzilikatuta, eta Espainiakoa desagertu egin zen egun batetik bestera. "Egun batzuk geroago gure kanpin barruan agertu zen, txiki-txiki eginda. Oraindik ez dakigu nork egin zigun *oparia*".

Z.V.M.



Talde polita joan ziren bidaiari eta ederto pasatu zuten.

Aretz
taberna
"Oilasko erreak eta paellak eramateko"
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

JAUSORO OSTATUA
Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

GORKA GARAI
taxi gidaria
TAXI
Mugikorra:
607 318 560

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA
Aretxagazeta

SADHANA YOGA ETA
PSIKOTERAPIA ZENTROA
- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia
(taldea eta indibiduala)
Lezama komertzial zentroa
Santa Kurtz 24
20550 ARETXABALETA
Tel.: 616 965 795

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a / 189. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Herriko komertzioak indartu eta sustatzeko bat egin dute dendariak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzako hainbat dendari batu egin dira herriko komertzioak bultzatzeko asmoz. Izan ere, azkenaldian salmenta kopuruak behera egin du, eta herritarrek, Eskoriatzako dendetan beharrean, kanpoan egiten dituzte erosketak geroz eta sarriago.

Herriko dendariak euren komertzioak indartu beharra sumatu dute. Zapatuan, esaterako, hogeita lau lagun dotore jantzi eta gala-afaria egin zuten. Herriko tabernetan ere ibili ziren zerbait hartzen. Euren asmoa herriko merkataritza sustatu eta susperetzea da. Xarmanta dendako Maite Zubiak aditzera eman duenez, urte hau ez da herriko dendetzako oso ona izan. "Urteko lehen hiru hilabeteetan asko nabaritu genuen jendea kanpora joaten dela erosketak egitera. Ez da izan momentu bakarra; izan ere, abuztuko oporetatik itzuli eta igarri genuen salmentak gutxitu egin zirela". Askotariko dendek hartuko dute parte kanpaina horretan: zapata, arropa, fruta dendek, estetika zentroek... Dendariak jabetzen dira



Zapatuko afaria izan zen dendariak datozen hilabeteetan antolatuko dituzten ekintzatik lehenena.

herrian ez dagoela denetarik erosteko aukera. "Herritar asko joaten dira kanpora horiek erostera. Eta arazoa ez dago hor; izan ere, behin tokiz mugituta, herrian aurki dezake-

keten gaiak ere erosten dituzte", adierazi du. Euren helburua da, beraz, bertan aurki dezaketena bultzatu eta eskoriatzarrei herrian bertan erostera animatzea.

Gabonetarako txartel batzuk atera eta bezeroei emango diete, ondoren zozketak egiteko; afariak eta dendetan gastatzeko dirua banatuko dute, esaterako.

Lehenengo ekimena egin zuten zapatuan; gala-afaria egin zuten hogeita lau lagunek

Herrian aurkitzen ez diren gauzak erostera kanpora joan eta denetarik erosteko ohitura dago

Gabonetarako txartel batzuk ateratzeko asmoa dute; bezeroei banatu eta zozketak egiteko



Saskibaloia protagonista martitzenean

Martitzenean saskibaloia buruzko jardunaldiak egin ziren Eskoriatzan. Goizean udaletxean hitzaldia; arratsaldean, berriz, ibarreko entrenatzaileentzat, saio praktikoa egon zen ikusgai kiroldegian. Eguna amaitzeko, Eskoriatza KE-Hondarribia/Irunek partidua jokatu zuten. 20-103 irabazi zuten bisitariak lagun arteko norgehiagoka. Partiduan omenaldia egin zioten Isa Sarabia jokalaria, orain dela gutxi lesionatu eta taldea utzi behar duela. /Z.V.M.

LABUR

Euskarazko jolasen ikastaroa bihar amaituko da

Euskarazko jolasen ikastaroaren azken eskolak emango dituzte bihar. Ohi baino jende gutxiagok eman dute izena aurtan. Izan ere, guraso eta haurrei jolas eta kantak irakasteko asmoa zuten arren, hiru familiak eman zuten izena bakarrik eta bertan behera geratu geratu zen ikastaroa. 0 eta 5 urte arteko haurrentzako jolas eta abestiak ikasten, zazpi lagun ibili dira. Helburua, bertako hizkuntza jolaserako erabili eta izena eman dutenei horretarako baliabidea eskaintzea.

EUSKARAREN EGUNAREKIN HASIKO DA ABENDUA


Michelin gidarekin informazio turistikoa bilatzen ikasteko aukera eskainiko du herriko KZguneak

Z.V.M.

Abenduaren 3an Euskararen Eguna da, eta Eskoriatzan festa giroan ospatuko dute eguna. Bestalde, KZguneak askotariko ikastaroak antolatu ditu; betiko ikastaroez gain, berriak ere antolatu dituzte. Amaitzeko, Amuskak antolatu-tako sukaldaritza ikastaroa.

Abendua iristear dago, eta urteko azken hilabetearen ere egongo da zer egin herrian. Hasteko, egubakoitzean Euskararen Eguna ospatuko da. Eskoriatzan ere antolatu dituzte ekimenak. Festa giroan aldarrikatuko dute eguna, eta hasteko, *Esanak esan, euskara* kartela ipiniko dute herriko plazan, eta herritarrek gura dutena idazteko aukera izango dute. Gainera, Unibertsitatean emanaldia eskainiko du Lakrikun antzerki taldeak.

Bestalde, hilaren 19an, Donostiako Aita Garayoa Abesbatzak emanaldia eskainiko du parrokian. Arkaitz Mendozak zuzentzen du 1986. urtean sortu zen taldea. 50 kidek osatzen dute abesbatza, eta XVI. mendeko polifoniatik hasi eta euskal eta



Ikasle bakoitzak ordenagailu bat du eskolak hartzeko.

ARTXIBOA

mundu osoko folklore askotari-koetara iristen dira emanaldietan.

KZGUNEA ETA AMUSKA

KZguneak beti antolatzen ditu ikastaroak; eskoriatzar ugari gerturaten da Internet erabiltzen

ikastera. Postalak bidaltzen, gura duzun liburua bilatzen, albistek irakurtzen, lana bilatzen... erakusten duten eskolak eskainiko ditu Aitor Madrid KZgune-ko arduradunak. Berrikuntza bat ere edukiko du; izan ere, Miche-

lin gidarekin zer egin daitekeen irakatsiko dute hil bukaeran.

Bestalde, Amuskak antolatu-ta, sukaldaritza ikastaroa eskainiko dute abenduaren 13an, 14an eta 15ean. Eskolak 18:00etatik 20:30era emango dituzte.

IKUSKIZUNA/ Pirritx eta Porrotx pailazoak bihar arituko dira

Pailazoek 'Patata, patata!' azken lana aurkeztuko dute Kiroldegian

Z.V.M.

Gaztetxo mordo gerturatuko da bihar, zapatua, Eskoriatzako Kiroldegira. Izan ere, euren gustuko pailazoek abentura berri bat ekarriko dute Eskoriatzara. Helburu jakin bat dute Pirritx eta Porrotxek, eta ikusleek lagundu beharko diete euren nahiak lortzen.

Patata, patata! du izena Pirritx eta Porrotx pailazoaren ikuskizun berriak. Urtero gerturatzen dira

Eskoriatzara euren lan berriak estreinatzen, eta aurten ere ez dute hutsik egingo.

Bihar izango da hitzordua, Kiroldegian 17:00etan hasita. Sarrera lau euro da. Gaztetxo eta nagusi ugari gerturatuko dira ziurrenik Kiroldegira bi pailazoen abentura berriak bizitzera. Barre algarak nagusituko dira bihar Kiroldegian. Izan ere, gaztetxoek gustuko dira pailazo hauek, eta herrian eskaini dituzten emanaldi guztietan lepo bete dute tokia.

ADISKIDE BERRIA AURKEZTUKO DUTE

Pirritx eta Porrotxen adiskide Takolo ez da beraiekin arituko taula gainean. Baina hala ere, ez dira bakarrik etorriko. Izan ere, Sahararik etorritako Tider lagun berria izango dute abentura honetan bidaia-lagun.

Patata, patata! ikuskizunean, Saharako laguntxoak euskal hizkuntza ikasiko du, eta Euskal Herriko bizimoduari buruz egingo diote berba bi pailazoek. Bide batez, Tider bere herrialdeari buruz mintzatu da.

Baina ikuskizunean abentura zirraragarria bizi izango dute hiru lagunek. Izan ere, *Patata, patata!* ikuskizunean helburu zehatz bat dute: argazki bat atara behar dute kosta ahala kosta.

Abentura gehienetan bezala, gaiztakeriei aurre egin beharko diete pailazoek eta euren adiskide berriak. Txilipo udaltzain erretxinak ez du hutsik egingo bihar Kiroldegira, eta bere ankerkeriei aurre egin beharko diete hiru lagunek ikusleen laguntzarekin batera.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

KEPA JUNKERAREN EMANALDIA GAUR

Kepa Junkerak emanaldia eskainiko du gaur 22:30ean Kiroldegian. Albokari eta txalapartariak lagunduta emango du kontzertua.

KZGUNEA

Postal bat bidal ezazu eta Aurkitu zure liburua ikastaroa abenduaren 1ean, eguaztenean emango dute, 09:00etatik 11:00etara. Bestalde, abenduaren 3an, egubakoitza, *Jarraitu gustuko duzun kirola* (09:00etatik 10:00etara), *Zure kanala sintonizatu* (10:00etatik 11:00etara) eta *News* (11:00etatik 13:00etara) ikastaroak emango dituzte.

AXTROKIRENAGENDA

BERTSO ESKOLA

Bertsu eskolaren bigarren saioa izango da 17:00etatik 18:30era Intxaurtxuetan. Eskoriatza eta Gatzagako bost haur daude; oraindik interesatuek 943715434an eman dezakete izena.

COMPOSTELA
Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 55 22

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Ze barri?

**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Guraso elkarteak bilera egin, eta idazkari eta batzordekide berriak aukeratu ditu

Z.V.M.

Gatzagako guraso elkarteak bilera egin zuen aurreko astean. Bi urtean behin aldatzen dituzte batzordekideak, eta hori egitea egokitu zitzairen. Hala, idazkari eta batzordekide berriak aukeratu zituzten, eta negurako hainbat ekimenez egin zuten berba.

Aurreko astean Gatzagako guraso elkarteak, GURELek, bilera egin zuen herrian duen egoitzan. Elkarreko batzordekideak aldatzea egokitu zitzairen azken bilera horretan. Bi urtean behin egiten dute hori.

Aurreko astean egin zuten aldatzekin, batzordekide berria sartu da Gatzagako guraso elkar-

tean. Izan ere, Eneka Zankadaren ordezko kidea Edu Arana izango da elkartean, eta Itsaso Eginok, berriz, idazkari lanak egingo ditu Ana Esnalen ordez.

Bestalde, aurtengo neguan hainbat ekimen egiteko asmoa berretsi zuten iragan astean. Urteroko ohiturari jarraituz, Gabonetan jaiotza jarriko dute, eta iaz egin bezala bidaiaren bat.

AURREKO ALDAKETA

Iaz, lehendakaria eta batzordekide bat aldatu zituzten GUREL elkartean. Orduetik hona Txema Fernandezek lehendakari lanetan dihardu; Maite Etxebarriak, aldiz, batzordekide lanetan. Guztiek lanean buru-belarri jarraituko dute, orain arte bezala.


Aurreko asteko bileran idazkaria eta kide berria sartu ziren elkarteko batzordean

Negurako hainbat ekimen antolatuko dituzte: esaterako, jaiotza, eta bidaiaren bat



Bi urtetik behin aldatzen dituzte elkarteko arduradunak.

ARTXIBOA



Leintz Eskola Kirola aurkeztu zuten

Leintz Eskola Kirola 2004-2005 proiektua martitzenean aurkeztu zuten Gatzagan. Bertan egon ziren, besteak beste, Joxerra Perez alkatea, Arizmendiko Txaro Iraeta, Kepa Altube Leintz Eskola Kiroleko Batzordekidea eta Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiaren Kirol zuzendaria. Egitasmo horren xedea 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutil guztiei egokitutako kirol eskaintza antolatzea da. Horren ondoren, guztiek Labidean prestatutako pin-txoak jateko aukera izan zuten kultura etxean.

LABUR

Neska-mutikoentzako aurtengo Gabonetako marrazki lehiaketa abian da

Gabonak gainean daudela eta, lehiaketa baterako deialdia egin du Eskoriatzako Udalak, eta Gatzagan jaio edo bizi diren 3 eta 12 urte bitarteko gazteek ere har dezakete parte bertan. Asmoa, Gabonak gaitzat harturik, folio baten tamainako marrazki bat egitea da.

Margoekin euren abilezia erakusteko aukera dute herriko gaztetxoek deialdi horren bidez. Irudimena dantzan jarri eta urteko sasoi horrek bakoitzari adierazten diona paperean marraztu eta koloreztatzea da helburua.

Deialdira aurkezten den neska-mutil bakoitzak lan bakarra aurkezteko aukera izango du. Orri bakoitzaren atzealdean izen-abizenak, telefonoa, e-maila eta helbidea idatzi behar dira. Lanak aurkezteko azken eguna datorren hilaren 10a izango da, eta Eskoriatzako ludotekan edo Udal Bibliotekan aurkeztu ahal dira.

Gabonetan, marrazki guztiak kiroldegian egongo dira ikusgai. Gainera, zozketan ateratako marrazkiak Gabonetako egitarauan argitaratuko ditu Eskoriatzako Udalak. Baina egongo da saririk ere. Izan ere, maila bakoitzetik aurkezten diren parte-hartzaileen artean sari bat zozketatuko dute antolatzaileek.

DANBAKA))))))

DEBAGOIENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

PUBLIKOAREN SARIA
Gasteizko Carrion musika dendaren eskutik bateria bat eta 1.000 euroko erosketa-txartela SMS mezu gehien jasotzen dituen taldearentzat.

SMS MEZUAK!

Gustukoen duzun talde, bakarlari edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Zenbat eta mezu gehiago, irabazteko aukera handiagoa!
Mezuak bidaltzeko jarri: DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira. (Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.)

"Laserra ileak behin betiko kentzeko sistema berri bat da"

Lirain estetika zentroko Mari Carmen Pardorekin bildu gara laserraren inguruan informazioa jasotzeko asmoz. Mari Carmen Debagoieneko estetika zentrorik

handienaren arduraduna da, teknologiarik aurreratuenak erabiltzen dituzte bertan, eta laserraren abantailak aurkeztuko dizkigu ondoren.

Zertan datza laser depilazioa?
Ileak behin betiko kentzeko sistema berri bat da. Minutu gutxiko saio gutxi batzuekin gutxienez hilearen %80a desagertzen da. Gainera, beste teknika batzuen aldean ez da minkorra eta ez du bigarren mailako efekturik.

Gorputzeko edozein ataletan egin daiteke laser depilazioa?
Bai, gorputzeko atal guztietan, emakume zein gizonezkoetan eta atal sentikorrenetan ere bai. Emakumezko gehienek aurpegia, hankak, besapeak eta izterondoak egiten dituzte; gizonezkoek, aldiz, masailalboa, bizkarrak eta bularra.

Ile mota ezberdinak daudela kontuan harturik, laser ezberdinak daude ile mota bakoitzarentzako?

Bai. Ez da berdina ile sakon eta gizen bat tratatzea edo ile fin eta gaztaina kolorekoa izatea.

Lirain-en zein laser mota duzue?

Bailaran laser plataforma dugun bakarrak gara. Ile bakoitzarentzako laser mota bat dugu, urte-

ko 365 egunetan erabilgarria. Alejandrita laserra: oso egokia da tratamenduetan akabera onak emateko. Neodimio-yag laserra: laser honek azala zeharo mindu gabe depilatzea lortzen du. IPL-fotodepilazioa: hobeto barneratzea lortzen da aparailu honekin, gorputzeko atal handiagoi heltzen die, eta emaitza onak lortu.

Zerbait egin behar da laserra-ekin hasi aurretik?

Kontuan izan behar da medikamentu fotosentikorren bat hartzen den tratamendua egiten dugun bitartean, eta zein laser mota hartzen dugun arabera, egun batzuetan eguzkirik ez hartzea gomendatzen dela tratamenduari hasi aurretik eta



M. Carmen Pardo Abad
Lirain Zentruko arduraduna

ondoren.

Zein da momenturik egokiena tratamenduari hasteko?

Orain da momenturik egokiena, azala eguzki izpirik jasotzen ez

duelako urteko sasoi honetan.

Tratamendu mota hauek gizon- ezkoek ere egiten dituzte?

Egia esanda, gero eta gizon gehiagok laserraren plazera probatzen du, bere azkartasunagatik. Kirolariak ere asko etortzen dira, emaitza onaren erosotasunaz gozatzeko.

Noiz hasiko gara laserraren emaitzak igartzeko?

Lehenengo saioan dagoeneko ile portzentaje handi bat desagertzen da.

Zein maiztasunekin egin behar ditugu laser saioak?

Aurpegian tratamendua jasotzen dugunean, hasieran 4 edo 6 astean behin. Gorputzeko edozein ataletan jasotzen badugu, berriz, bizpahiru hilean behin. Gero, saioak urritu egiten dira.

Garestia da laser tratamendu bat?

Kontuan izaten badugu epe laburrean ilearen %80 desagerrarazten duela eta honek epe luzera dakarren erosotasuna eta aurrezteak, ez dela batera garestia esan dezakegu. Gainera, Lirainen bi aukera eskaintzen ditugu: bata, aurrekontu itxi baten arabera. Honek ziurtatzen du lehen aipatutako emaitzak lortuko direla. Bestea datza bezeroak galdu nahi duen ilearen arabera saio kopuruak ematean.

Arriskutsua izan daiteke?

Segurtasun arauak jarraitu ezke-ro ez. Guk ditugun ekipo guztiak Europar Batasuneko segurtasun arauak zorrotz betetzen dituzte.



Lehenengo saioan dagoeneko ile portzentaje handi bat desagertzen da.



Bailaran laser plataforma dugun bakarrak gara Lirainen.



Ahaztu zaitez depilazioaz

Ezagutu laserraren atsegina

Lirain, Bailaran laser plataforma duen zentro bakarra

YAG


Barizeak eta Kuperosis aurkako tratamenduak (medikuarekin)

Fotodepilazioa.IPL

Azkarra eta emaitza onak

ALEJANDRITA

Gaztaina koloreko ilearentzat aproposa



ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE. HASIERAKO FROGA DOAN.

Debagoieneko estetika-gunerik haundiena. Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1

20500 ARRASATE

Tel: 943 79 52 17

Azaroaren 26tik abenduaren 11ra
laser eskaintza:

Saio bat besapeetan Saio bat izterondoetan

%50eko
deskontua

ARTZUBI ELEKTRAGAILUAK

INAUGURAZIOA LUNTX ETA GUZTI

Abenduaren 1ean, 18:00etan

Iparragirre 4 • Aretxabaleta



ZATOZ!